

Aria	Mala	Proiektua	Etapak
EUSKARA GIDA	01	i.blai	Lehen Hezkuntza



Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa
Sailean onespenerako aurkeztua (2008-05-09).

Liburu hau Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako Euskara arlorako da,
eta *librai* proiektuko materialetako bat da.

Gerentea: Agustin M. Oiarzabal • **Edizio zuzendaria:** Sabin Gorrotxategi •
Edizio koordinazioa: Nekane Umerez, Edurne Otaegi • **Egileak:** Ibaizabal taldea •
Testuen zuzentzailea: Leire Calle • **Proiektuaren irudia eta zuzendaritza artistikoa:**
GELVeko irudi eta diseinu departamendua • **Proiektuaren diseinu grafikoa:** Sebastián
Balgún • **Azaleko argazkia:** Jabi Artaraz • **Maketazioa:** Igor Fernandez, Ima Mendiola,
Aitziber Ibaibarriaga • **Inprimatzailea:** Publicidad Cuatroas S.L., Ibarsusi bidea 1-1.
48004 BILBO (Bizkaia). cuatroas@cuatroas.com

LMH 1 gida - 11298

ISBN: 978-84-8394-004-4 · Lege gordailua: BI-1508-08
© Ibaizabal argitaletxea, 2008

Argitalpen honen eskubide guztiak Ibaizabal Edelvives S. A. argitaletxearen esku geratzen dira.
Copyrightaren titularren idatzizko baimena lortu ezean, ezin da lan hau osorik edo zatika
berregin, bidea edo prozedura edozein delarik ere (erreprografia eta tratamendu
informatikoa barne), ezta aleak publikoki errentan utzi edota maileguan eman ere.
Bestela, legetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira.



Aurkibidea

●	Proiektua	4
●	Ikaslearen liburua	15
	Programazioak	16
	Ariketen erantzunak	28
	Ipuinak maiuskulaz eta letra kaligrafikoan. Ipuinak lantzeko orientabideak	74
●	Letren koadernoak	93
	Programazioa	94
	Ebaluaziorako taula	95
	Jarduerak egiteko orientabideak	96
●	Hizkuntza koadernoak	97
	Programazioa	98
	Ariketen erantzunak	99
●	Testuen koadernoak	109
	Programazioa	110
	Ariketen erantzunak	111

SARRERA

Indarrean dagoen Curriculumak jasotzen duen bezala, Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua pertsona era integralean eta harmoniatsuan garatzea da, alderdi intelektualean, afektiboan eta sozialean. Eta horretarako ezinbestekoa da hizkuntza eta literatura ikastea; hau da, jarduera sozial eta indibidualetan hizkuntza modu egokian erabiltzeko ahalmena lantzea, eta literatura testu adierazkorak irakurtzeko eta interpretatzeko trebetasunak eskuratzea.

Pertsonaren garapenerako funtsezko alderdia da hizkuntza, honako bi funtzio hauetan: funtzio indibidualean, pertsona bakoitzari pentsatzeko, jakintza egokitzeko eta sentimenduak, bizipenak, ezagutzak adierazteko eta abarretarako ahalmena posible egiten diolako; eta funtzio sozialean, elkarren artean komunikatzeko, giza taldeak eratzeko eta garatzeko tresna eta euskarri delako.

Horrez gain, ezinbesteko tresna da edozein ikaskuntza prozesu aurrera eramateko. Eta baita nor bere burua ezagutzeko, bizikidetzarako arauak finkatzeko, taldean eta bakarka lan egiteko, sen artistikoa eta sormena garatzeko, informazio eta komunikazio teknologiak ezagutzeko eta erabiltzeko, eta ikuspegi kritikoz eta autonomiaz ikasteko.

Beraz, Oinarrizko Hezkuntzan hizkuntzen irakaskuntzaren helburua da ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea, ahozkoa zein idatzizkoa; hau da, gizartearen esparru guztietan eraginkortasunez eta egoki jardun daitezen, jakintza eta prozedura egokiak garatzea. Eta horixe da, hain zuzen ere, **i.blai** proiektuaren xede nagusia.

IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

i.blai proiektua osatzen duten materialak prestatzerakoan, honako irizpide hauek izan ditugu gogoan:

— Ikasleen ezagupen eta esperientziek izan behar dute abiapuntu, ikasleek beren ikaskuntza eraikitzen ari direla senti dezaten. Izan ere, ezagutza eraikitze prozesu baten emaitza da, eta ikaslea prozesu horren protagonista. Horrela, espazioek, edukiek, programa-

zioek eta, azken batean, alderdi guztiek egon behar dute eraikitze prozesu horren mende. Horretan laguntzeko behar-beharrezkoa da ikaslearen errealitatek hurbil dauden jarduerak eskaintzea, pixkanaka-pixkanaka aurrera egiteko aukera emango dioten jarduerak.

Hizkuntzarekin ere berdin gertatzen da. Etapa hasierako haurrek barneratuta daukaten hizkuntza hartu behar da kontuan, eta haren erabileratik abiatu behar dugu hizkuntzak irakasteko.

- Ikaslea gizarte eragilea da, hots, hizkuntzaren bidez hainbat zeregin bete beharko ditu gizartean. Eta horretan trebatu behar du, jarduera komunikatiboak aurrera eramateko estrategiak ikasi behar ditu, alde batetik hizkuntza bera eta horren mekanismoak ezagutzeko, eta bestetik komunikazio jardueretan eragiten duten elementuak kontuan hartuta.
- Ikaskuntza prozesuan oinarrizko alderdietako bat ikasleen motibazioa da. Ikasteko jakin-mina indartu behar da, erronkak jarri behar zaizkie, hipotesiak planteatu eta abar. Horretarako, materialetan erabiliko diren testuak, irudiak, jarduerak, gaiak, prozedurak... garrantzitsuak dira oso.
- Erabileran oinarritu behar du irakaskuntza prozesuak, ekintzan. Horregatik, proposatu dugun lanaren oinarrian prozedurazko edukiak daude, eta kontzeptuzkoak horien zerbitzura, bereziki ziklo honetan.
- Ahozko hizkuntzari arreta berezia eskaini behar zaio, entzumenari zein mintzamenari. Izan ere, ezinbestekoa da, benetako komunikazio gaitasuna ziurtatu nahi baldin bada.
- Eskoletan, geletan, daukagun errealitatea askotarikoa da. Ikasleen artean desberdintasun nabariak daude, hiru mailatan: hizkuntza, egoera soziala eta garapen pertsonala. Errealitate horri erantzutea erraza ez den arren, jarduera irekiak planteatzea eskatzen du, bitartekari lana egiten duen irakasleari aukera eman diezaioketenak ikasle bakoitzaren errealitateara egokitzeko.

Horrekin batera, ikasleei lagundu egin behar zaie beren hizkuntzari eta kulturari eusten eta balioa ematen.

- Ikasleei bizitzarako autonomia lortzen lagundu behar diegu, eta horretarako lanen aurrean ahalegin bat eskatu behar zaie, deskubritzeko aukerak eman behar zaizkie, erronkei aurre egiteko estrategiak garatzen lagundu eta abar. Horretarako, banakako lana garrantzitsua da, baina talde txikietan eta handietan lan egitea ere beharrezkoa da, komunikazio egoerak antolatzeke ezinbestekoa (txandak errespetatuz hitz egin, ahots goran irakurri, elkarri entzun...).

Irakurketa eta idazketa

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan helburu garrantzitsuenetako bat da ikaskuntza instrumentalak menderatzea, bereziki irakurketa eta idazketa, gaitasun horien bitartez lortuko baititu haurrak ezagutza handiagoak eta sakonagoak.

Gure eskoletan geroz eta hedatuagoa da haurrak idazketara, eta batez ere irakurketara, Haur Hezkuntzan hurbiltzeko ahalegina. Izan ere, 0-6 urte bitartean ahalmen handiagoa dute ezagutzak barneratzeko, eta, horrez gain, gaur egungo haurrek txiki-txikitatik dute hizkuntza idatziaren erreferentzia: telebista, ordenagailua, kartelak, prentsa...

Hala ere, irakurketan eta idazketan oso egoera eta maila desberdina dutela iristen dira ikasleak Lehen Hezkuntzara. Eta jakin badakigu uste baino zailtasun handiagoak izaten dituztela, batez ere ikasturte hasieran, ziklo berrira egokitzeko.

Zailtasun horiei eta geletan dagoen aniztasunari erantzuteko diseinatu zen **i.blai** proiektua. Nola? Honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Ikasleari letra ulergarria egiten eta idaztean ahalik energia gutxiena ematen irakatsiz gero, ikasketa guztietarako bidea erraztuko diogu. Horretarako, Irune Ibarra psikologo eta grafologoaren irizpideari jarraituz emandako ereduak erabili ditugu *Letren koadernoan* (letren arteko loturak, idazketaren norabidea, letren tamaina...).
- Irakurketan eta idazketan oso maila desberdina dutela iristen dira haurrak: metodologia desberdinak erabili izana, norberaren erritmoa... **i.blai** proiektua osatzen duten materialek errealitate askotara egokitzeko aukera ematen dute.

- Haurrak oso txikitatik hasten dira idatzizko kodea bereizten. Horma irudiak, kartelak eta iragarkiak ikusten ohituta daudela txiki-txikitatik, eta gehien ikusten duten letra inprentakoa da. Hori dela-eta, irakurtzeko soilik diren testuetan letra horixe erabili dugu, inprentakoa. Idazteko direnetan, aldiz, eskuzkoa edo kaligrafikoa. Dena dela, letra maiuskularen presentzia ere nabaria da. Hala eta guztiz ere, gida honetan bertan, 1. mailako lehenabiziko hiruhilabeteko irakurgaiak maiuskulaz eta letra kaligrafikoan ere eskaintzen dira, hezitzaile bakoitzak bere errealitateari ondoen egokitzen zaiona erabil dezan.

Letra tamaina ere bereziki zaindu dugu, eta tamaina handiko letra erabili dugu, ikasleak ahalik traba gutxiena izan dezan irakurtzean.

- Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako saltoa handia da haurrentzat. Lehen mailako lehen hiruhilabetea, behintzat, behar izaten dute erritmoa hartzeko, eta materialek bide hori egiten lagundu egin behar diete. Horregatik, testuen, jardueren eta abarren progresioa zaindu da.
- Irakurtzen ikasteko prozesuan, lagundu egin behar zaio ikasleari testuaren ulermena ziurtatzen. Eta horretan laguntzen du jarduerak mailakatuta egoteak. Gainera, ulermen mota asko dago, eta guztiak hartu dira kontuan: hitzez hitzekoa, inferentziak egitekoa eta kritikoa. Horrela lortuko dugu ikaslea irakurle trebea izatea zikloa amaitutakoan.
- Irakurgaien irakurketa isilean egiteko planteatuta dago, printzipioz, nahiz eta irakaslearen esku geratzen den irakurtzeko modua. Zergatik?

Zenbait adituren ustetan (Glen Domann horien artean) ez dago irakurketa ahotsarekin erlazionatu beharrik. Testuaren edukia interpretatzen ari garen bitartean ahots goran irakurtzea ariketa konplexua da. Horretarako trebetasuna izatea oso garrantzitsua da, baina garai egokian egin beharko litzateke. Irakurketan trebatzen ari garen bitartean ahots goran irakurtzeko trebetasuna garatzea gauzak konplikatzeko da, arnas-keta, abiadura, intentsitatea eta abar zaindu behar izaten direlako, era berean. Ondorioz, helburua testua ulertzea bada, hobe da isilean irakurri; bestela, prozesua konplikatu eta mantsotu egiten da.

Proiektua

GAITASUNAK

Europako Parlamentuaren gomendioari jarraituta, derrigorrezko eskolaldiko curriculumak **gaitasunetan** oinarrituko da. Beraz, gaitasunetan oinarritutako irakaskuntzak ikasleek “egiten ikastea” du helburu. Hori dela eta, derrigorrezko hezkuntzan jorratzen diren arlo guztietan hezkuntza gaitasun orokorrak eta oinarritzko gaitasunak kontuan hartuko dira.

Hezkuntza gaitasun orokorrak heziketa oso baterako erreferentzia ardatzak dira, hezkuntza esparru guztietan ikasten direnak.

Oinarritzko gaitasunak, berriz, “ikasleek derrigorrezko eskolaldian lortu beharreko jakintzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen elkarrekintza dira”, ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta testuingurua kontuan hartuta irakatsi beharrekoak.

Hizkuntza arloa eta oinarritzko gaitasunak

Hizkuntza arloak oinarritzko gaitasun guztiak garatzen laguntzen du. Izan ere, hizkuntza ezinbesteko tresna da komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizarteratzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena lantzeko.

Hizkuntza arloaren bitartez, gaitasunen honako alderdi hauek garatuko dira:

1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna

Helburua da ikasleek beren burua ezagutzen ikastea, ingurua interpretatzen jakitea eta ingurunean jarduteko premiazko trebetasunak barneratzea. Ikasleek errespetuzko jarrerak landu behar dituzte, bai beren buruari begira, baita gainerakoei eta ingurumenari begira ere.

2. Ikasten ikasteko gaitasuna

Ikasleari elementuak eta estrategiak irakatsiko zaizkio ikasitakoaren inguruan gogoeta egiteko, eta, hala, zenbat aurreratzen ari den ohartzeko, eta bere autonomia eta erantzukizuna hobetzeko.

3. Matematikarako gaitasuna

Hizkuntza lantzean, matematikako oinarritzko kontzeptuak ere erabiltzen dira, informazioa interpretatzeko edota adierazteko (zenbakien kodea erabiltzen da mezuak aurkitzeko, sekuentziak ordenatzeko...).

4. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna

Ahozko eta idatzizko komunikaziorako erabili behar da hizkuntza, eta, horrekin batera, baita ikasteko tresna bezala edota emozioak eta jarrerak bideratzeko tresna bezala ere. Horregatik da ezinbestekoa oinarritzko lau trebetasunak garatzea: entzutea, hitz egitea (eta solasean aritzea), irakurtzea eta idaztea.

5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Helburua da IKTen bitartez ikaskuntza prozesua atseginagoa egitea eta IKTak gehiago ezagutzea, informazioaren munduari zabalik dauden leihoak baitira.

6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Arreta berezia eskaintzen zaio balioen eta aniztasunaren tratamenduari, gogoeta kritikari eta elkarrizketari, horiek baitira bitartekoak egungo gizartea ulertzeko, jardunbide demokratikoetan oinarritutako irizpide etikoak erabiltzeko, eta bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko.

7. Giza eta arte kulturarako gaitasuna

Helburua da ekimen pertsonala, irudimena eta sormena adierazpide gisa lantzea, norberaren burua aberasteko. Horrez gain, baita kultura eta arte adierazpenak ezagutzea, ulertzea eta ikuspegi kritikoz balioesten ikastea ere. Gaitasun honek lehentasuna emango dio euskal kulturaren arte eta kultura adierazpenei.

8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Ikasleek beren burua ezagutu behar dute, norberaren aukerak eta premiak zein diren jakiteko. Egoerak interpretatzeko eta erabakiak hartzeko gai izan daitezen, ikasleen ekimena, kritikarako gaitasuna eta irizpide pertsonalak sustatu behar dira. Horrez gain, ikasleek ikasi egin behar dute harremanak sortzen, taldean lan egiten eta elkarrizketarako gaitasuna eta enpatia hobetzen.

HELBURUAK

Lehen Hezkuntzan, Euskara eta Literatura irakasgaien helburua honako gaitasun hauek eskuratzea izango da:

1. Ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulertutakoa komunikazio eta ikaskuntza egoera berriei aplikatzeko.
2. Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio premia guztiak betetzeko.
3. Hainbat egoeratan elkarrizketan egoki aritzea, errespetuz eta elkarri lagunduz, norberaren sentimenduak eta ideiak ezagutzeko, nor bere jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzen ikasteko.
4. Gizarte hedabideak, informazio eta komunikazio teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea (informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea...), jakintza eraikitzeke eta bizitza sozialean parte hartzeko.
5. Hizkuntzen erabilerei eta arauetara buruzko gogoeta egitea, hizkuntza egoki, koherentziaz eta zuzen erabili ahal izateko, hizkuntzaren estereotipoak eta bestelako aurreiritziak alde batera utziz.
6. Ikasgelako eta komunitateko hizkuntza aniztasunari balioa ematea, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura ondareztat hartuz.
7. Ulertuz irakurtzea era askotako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horrela, irakurketara zaletzea.
8. Literaturaz gozatzea, genero askotako testuak irakurriz eta entzunez, hizkuntza aberasteko eta nor-tasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeke.
9. Literaturaren hizkuntzaren oinarrizko arauak ezagutzen hastea, testuak ulertzeko eta ekoizteke.
10. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikas-teko duen ahalmenean, komunikatzeko gaitasuna hobetzeko.

EDUKIAK

1. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea

- Ikasgela barruan erabilitako testuak ulertzea: ohar-rrak, arauak, azalpenak, bizipenak eta sentimenduak.
- Irratiko eta telebistako testuetako informazio orokorra ulertzea.
- Ikastekoak diren ahozko testuak ulertzea: deskribapenak, azalpen laburrak, ikasten ari denari buruzko elkarrizketak eta lana antolatzeko azalpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea: hipotesiak egin, testuaren zentzu orokorra eta ideia nagusia antzeman, informazio zehatza aurkitu...
- Ahozko testuen alderdi nagusiak ulertzea eta ahoz adieraztea.
- Datu zehatzak antzematea.
- Hurbilekoak zaizkion komunikazio egoeratan parte hartzea, eta lankidetzan aritzea (solaskide ezagunekin, hurbileko gaiei buruz...).
- Komunikazio egoeren oinarrizko ezaugarriak aztertzea.
- Pertsonen arteko harremanetan erabiltzen diren testuak sortzea: jolaserako jarraibideak, ohar-rrak, azalpenak, iritziak, eta bizipenen eta sentipenen adierazpenak.
- Ikasketa prozesurako ahozko testuak sortzea: azalpen laburrak, deskribapenak, elkarrizketak eta azalpenak.
- Komunikazioari eusteko elkarreragineko arauak erabiltzea: entzutea, txanda errespetatzea...
- Argi eta behar bezain ozen hitz egiteko interesa izatea.
- Eskolako esparru guztietan euskara, erabiltzeko interesa izatea.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea komunikazio harremanetan.
- Informazio iturri diren hedabideetatik datozen ahozko testuak balioestea.

2. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea

- Errealitate hurbileko testuen bidez jasotako informazioa ulertzea: gonbitak, zorion txartelak, ohar-rrak eta mezuak.

Proiektua

- Hautzaroen gertukoak eta ohikoak diren gertaerei buruz gizarte hedabideen bidez jasotako informazioa ulertzea: albistea.
- Ikasketa testuetako informazioa ulertzea: liburuxkak, ikasliburuak, deskribapenak, jarraibideak eta azalpenak.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen hastea: aurreikuspenak egitea, irudiak interpretatzea, hipotesiak egitea, edukia laburtzea...
- Ulermen arazoak antzematea: ulertzen ez diren hitzak.
- Landutako testu generoak identifikatzea.
- Ozen irakurtzea, ahoskera eta erritmo egokia erabiliz.
- Informazioa lortzeko iturriak ezagutzea eta erabiltzea.
- Eguneroko testuak sortzea; gonbitak, zorion txartelak, oharrak eta mezuak.
- Gizarte hedabideetako testuak sortzea, eskolako euskarriak erabiliz.
- Eskolarekin zerikusia duten testuak sortzea: galdera sortak, zerrendak, deskribapenak, azalpenak...
- Testuak sortzeko estrategiak eskuratzen hastea, talde lanean: testuaren plangintza egitea, kokapena zehaztea, testua berrikustea eta norberak zuzentzea.
- Idazketaren arauak barneratzea.
- Ereduetan oinarrituta, testuak berridaztea.
- Testua prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hastea.
- Komunikazio egoeraren ezaugarriak ezagutzea: nontzat eta zertarako.
- Testua antolatzen ikastea: aurkezpena eta espazioaren banaketa.
- Testu idatziak txukun aurkezteko ardura garatzea.
- Idazketarekiko interesa erakustea, harremanetarako eta ikasteko tresna gisa.

3. Literatura hezkuntza

- Haurren interesekin bat datozen literatura testuak gogotsu entzutea eta ulertzea.
- Irakurketa gidatua egitea.
- Literatura testu ezagunen pasarteak eta egoerak antzeztea.

- Aproposak diren abestiak, olerkiak, bertsoak, aho korapiloak eta abar ulertzea, buruz ikastea eta errezitatzea, erritmo, ahoskera eta intonazio egokiarekin.
- Ereduak oinarri hartuta, testu narratiboak eta poetikoak birsortzen eta idazten hastea.
- Gelako liburutegia erabiltzea: gaiak eta testuak hautatzen hastea, norberari gustatzen zaizkionak adieraztea...
- Literaturaren ahozko eta idatzizko generoak ezagutzea: narratiboa eta lirikoa.
- Literatura testuak ongi pasatzeko bidetzat hartzea eta balioestea.

4. Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren arteko desberdintasun nagusiak ezagutzea.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioko testuinguruak ezagutzea.
- Gelan landutako testu generoak ezagutzea.
- Idazketa segmentatzeko tresna funtsezkoa hitza dela jakitea.
- Soinuaren eta grafiaren arteko harremana ezagutzea.
- Testuak eraldatzea: zabaltzea, ordezkatzeta...
- Testuak sortzearekin eta interpretatzearekin zerikusia duten hizkuntzaren oinarriko termino batzuk ulertzea.
- Landutako ahozko genero batzuen oinarriko ezaugarriak zein diren jakitea.
- Elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak ezagutzea.
- Letren izenak, eta horien eta fonemen arteko balio-kidetzak ezagutzea.
- Idazketaren norabidea eta noranzkoa, linealtasuna, banaketa, hitzen zatiketa eta abar ikastea.
- Letra larria eta xehea identifikatzea, eta zuzen erabiltzea.
- Oinarriko ortografia arauak ezagutzea.
- Idazketak duen garrantzia balioestea, eta idazketaren arauetikiko errespetua garatzea.

5. Hizkuntzaren dimentsio soziala

- Gelakideek dakizkiten eta erabiltzen dituzten hizkuntzak ezagutzea, eta aniztasun horren aldeko jarrera izatea.
- Euskarak gizartean dituen erabilerez konturatzea.
- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea, eta balioa ematea.
- Lehen hizkuntzatzat euskara dutenek elkarlanerako jarrera garatzea lehen hizkuntzatzat beste bat dutenekin, euskaraz ari direnean.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleek modu irekian eta konplexurik gabe parte hartzea euskarazko komunikazio elkartruketan.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Eguneroko ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, testuen informazio garrantzitsua jasotzeko eta beste egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Haurren errealitate hurbileko testu idatzi errazak ulertzea, aurrez horiek aztertzeko emandako jarraibideak erabiliz.
3. Informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, horretarako hizkuntzarenak ez diren elementuak erabiliz: irudiak, testuaren antolaketa...
4. Gertaerak, bizipenak edo ideiak ahoz adieraztea, era antolatuan.
5. Ikastetxeko harreman egoeretan parte hartzea, oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.
6. Haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi errazak eta laburrak sortzea, mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.
7. Idazketa sistemari buruz gogoeta egitea “testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz”, eta idazketa sistemaren erabilera sendotzea.
8. Oinarritzko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza jardueretan erabiltzea.

9. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta jarrera positiboa izatea.
10. Hizkuntza gutxituen garapenaren eta normalizazioaren aldeko jarrera garatzen hastea.
11. Gelako liburutegia erabiltzea eta haren antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.
12. Zikloari dagozkion literatura testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: ahozko tradiziokoak, haur literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.
13. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko diotenak identifikatzea.

IKASMATERIALEN DESKRIBAPENA

i.blai proiektuaren barruan, Ibaizabal argitaletxeak honako ikasmaterial hau eskaintzen du Lehen Hezkuntzako lehen zikloan Euskara arloa lantzeko:

Lehen Hezkuntza, 1. maila


- *Euskara 1*, ikaslearen liburua
- *Letren koaderno 1*
- *Hizkuntza koaderno 1*
- *Testuen koaderno 1*
- *Abestiak eta bestelako entzungaiak 1*, irakaslearentzako CDa
- *Gida 1*, irakaslearen gidaliburua

Lehen Hezkuntza, 2. maila

- *Euskara 2*, ikaslearen liburua
- *Hizkuntza koaderno 2*
- *Abestiak eta bestelako entzungaiak 2*, irakaslearentzako CDa
- *Gida 1*, irakaslearen gidaliburua

Proiektua

IKASLEAREN LIBURUA



Liburuak 12 unitate didaktiko biltzen ditu: hiruhilabete bakoitzeko lau. Unitate guztiek honako atal hauek dituzte:

Komikiak eta laminak




Unitateari hasiera emateko komikiak erabili dira unitate gehienetan, baina hiruhilabete bakoitzeko lehendabiziko unitatean laminak erabili dira. Izan ere, Haur Hezkuntzatik ohituago daude laminekin lan egiten, eta gaiak hitz egiteko aukera eskaintzeaz gain, elkarren arteko komunikaziorako eta talde lanerako aukera ere ematen die. Gainerako unitateetan komikiekin ematen zaio hasiera unitateari. Euren adineko lau lagunen eguneroko kezka, arazoak, zaletasunak eta bizipenak kontatzen dira, eta ikasleek eguneroko bizitzan behar dituzten hizkuntza balia bideak emateko eta ezagutzeko modua eskaintzen dute. Komikia CDan grabatuta dago, irakurri aurretik edo irakurri ondoren entzuteko, eta, batez ere, ulermena lantzen laguntzeko.

Hitz eta pitz



Komikietan eta laminetan lantzen denaren haritik, ikasleek beren errealitate hurbil egon daitezkeen gaiak landuko dituzte, eta ahozko ekoizpen txoak egiteko proposamen gidatuak izango dituzte: esperientziak kontatu, iritzia eman, deskribapenak egin, egoera ugari antzetz, elkarrizketak sortu... Horretarako, laukitxoetan bilduta hainbat egitura emango zaizkie ahozko ekoizpenak egiteko. Eta, horrez gain, baita zenbait eredu ere CDan, entzuteko. Era berean, entzumena eta ulermena lantzeko ere erabiliko dira grabazioak: entzun, osatu, ahoz aurkeztu, abestu...

Istori-misterio eta Misterioa argitzen



Gaur egungo ipuinak, ipuin tradizionalak eta olerkiak dira irakurgai moduan eskaintzen direnak. Irakurketan trebatzeko eta irakurketarako zaletasuna pizteko, ikasle adinerako erakargarriak izan daitezkeen testuak hautatzen saiatu gara.

Irakurri aurretik, testuan murgiltzen laguntzeko, galdera bat egiten zaie. Eta irakurri eta gero, hainbat jardura dituzte, kontakizuna ulertzen laguntzeko, eta gertakizu-

nen, sentimenduen, emozioen eta abarren inguruan gogoeta egiteko. Helburua da ikasleak ulermenean trebatzea, baina zentzu zabalean: gertakizunak zer ordenatan gertatu diren jakiteaz gain, pertsonaien ekintzen eta jarreraren zergatiak ulertzen ikastea (pertsonaien lekuan jarritz), esaten denaren atzean egon daitekeena deskubritzeko lehen urratsak ematea...

Hobetzen



Atal hau Lehen Hezkuntzako bigarren mailan ageri da, eta hizkuntza hobetzeko eta lexikoa eta egitura gramatikalki egokiak bereganatzeko jarduerak bildu ditugu bertan. Hizkuntzaren egiturak behin eta berriz erabiliz, modu batera eta bestera erabiliz, barneratuko baitituzte ikasleek.

Jolasean



Hizkuntzaren alderdi ludikoak osatzen du unitateko azken atal hau: aho korapiloak, zotz egiteko formulak, jokoak, igarkizunak, abestiak eta jolasean aritzeko eta ikasteko hainbat jardura aurkituko dituzte ikasleek. Abestiak eta zotz egiteko formulak CDan grabatuta daude, entzumena eta ahozkotatzenaren zenbait alderdi lantzeko aukera izan dezaten.

Autoebaluazioa



Hiruhilabete bakoitzaren amaieran, autoebaluaziorako ariketak eskaintzen dira, ikasleek bere lanaz, jarreraz eta egiten dituzten aurrerapenez gogoeta egin dezaten.


ERANSKINAK

1. maila: Antzerki tailerra



Liburuaren amaieran, hiruhilabete bakoitzeko ipuin baten gidoia eskaintzen da antzerkia egiteko. Eta, horrekin batera, antzezpenerako aholkuak ematen dira: antzezteko moduak eta antzezpenera prestatzeko hainbat aholku. Proposamen egokiak dira taldeko lana sustatzeko, bizikidetzaren arauak bereganatzeko eta sormena garatzeko.

2. maila: Testuak lantzen



Proiektua

Hiru proposamen egiten dira, hiruhilabetez bat lantzeko. Eranskinetan eskainita, irakasleari aukera ematen zaio egokien ikusten duen unean egiteko. Hiru testu mota lantzen dira: bertsoak, errezetak eta iragarkiak.


Idatzizko tailer hauen helburua ikasleak idazketan trebatzea da. Lau edo sei orrialdetan zehar, hizkuntzarekin jolastuz, hizkuntza erabiliz, urratsez urrats, ekoizpen bat egiten edota osatzen ikasiko dute. Eta testu mota horiek identifikatzeko eta ulertzeko mekanismoak barneratuko dituzte.

LETREN KOADERNOA



Koaderno honen helburu nagusia da letrak forma egokian idazten eta beraien arteko lotura egokiak egiten ikastea. Irune Ibarra psikologo eta grafologoaren irizpideak jarraituz, letra eredu egokiak eskaintzen zaizkie haurrei, idazkera ahalik egokiena egin dezaten, ohitura txarrak ez hartzeko eta energia alferrik galdu beharrik ez izateko, berez nahikoa ahalegin eta indar eskatzen baitie idazteak.

HIZKUNTZA KOADERNOA



Koadernoaren helburua batez ere idatzizko komunikazioa indartzea da. Eta jarduerak proposatuta dauden moduan, lan autonomorako aukera eskaintzen zaio ikasleei.

Lehenengo mailan, zailtasun gehien duten silabak identifikatzeaz gain, hainbat hizkuntza kontzeptu lantzen dira (puntuak eta maiuskula, adjektiboak, ezezko esaldiak...). Horretarako, prozedura mota anitz erabiltzen da, bide batez silaba, hitza edota esaldia bezalako kontzeptuak barneratzen laguntzeko: hitzak osatu silabak lotuz, esaldia osatzen duten hitzak bereizi, esaldiak osatzeko hitzak ordenatu...


Bigarren mailan, idatzizko komunikazioan trebatzeko, eta hizkuntza kontzeptuak barneratzeko prozedura sorta da bertan bildutakoa, 12 unitatetan banatuta.

TESTUEN KOADERNOA



Testu funtzionalak eta literatura testu tradizionalak oinarri hartuta (arauak, postalak eta gutunak, poemak, ipuinak eta hitz jolasak) eta horiekin jolas eginez, irakurritz, aldatuz, osatuz... hizkuntzaren mekanismoak barneratu eta komunikaziorako estrategiak garatuko dituzte. Horrekin batera, bizikidetzarako arauak (kideei entzutea, arazoak berdinaren artean konpontzen eta portaera negatiboak positibo bihurtzen ikastea) eta talde lana ere landuko dituzte.


Abestiak eta bestelako entzungaiak CDa



Maila bakoitzerako CD bat eman dugu argitarara. Bertan, ikaslearen liburuiko zenbait jarduera egiteko grabazioak

biltzen dira (azalpenak, elkarrizketak, kontakizunak, abestiak...). Ikasleek entzuteko, ikasteko, abesteko, eta, azken finean, gozatzeko ikasmateriala da.

GIDALIBURUA



Maila bakoitzerako gidaliburu bat prestatu dugu. Bertan, alde batetik, proiektuaren alderdi teorikoa azaltzen da (alderdi metodologikoak, programazioak, gaitasunak...); bestetik, ikaslearen materialetan bildutako ariketan erantzunak, horiek egiteko iradokizunak, eta, horiekin batera, hainbat proposamen gehigarri.